

KONTUAN HARTZEKO ARAUAK:

Honako arautegi hau betetzea derrigorrezkoa izango da Elkartean sartzen diren guztientzako, norberak hartu behar du ardura.




ERABILERA OROKORRA:

- **MASKARA.** Guztiek egoki jantzita eduki behar dugu, jatean edo edatean ezik.
- **HIGIENEA.** Gel hidroalkoholkoa egongo da eskuak garbitzeko, sarreran automatikoa, eta pote bana bi gelatan eta sukaldean. Komunean, aldiz, xaboi likidoa.
- **DESINFEKTATZEA.** Erabilitako elementu guztiak desinfektatu behar ditugu, hala nola mahaiak, aulkiak, kafe makina, barra gaina.....ura eta xaboiak edo desinfektatzaileak. Ondoren paperaz lehortu. Desinfektatzaileak eta paperak eskuragarri egongo dira.
- **KOMUNAK.** Ukitutako elementu guztiak desinfektatuko ditugu, hala nola, konketa, eta kanila, komuna, heldulekuak eta abar... Erabilitako paperak botatzeko baldeak egongo dira.
- **EDUKIERA.** Mugatua izango da, 22 pertsona guztira: 12rentzako lekua (6 + 6) barra dagoen gelan eta 10rentzako (6 + 4) beste aldean.
 - Ez da zutik egon behar, jarrita baizik.
 - Taldetik lagun bat bakarrik ibiliko da kontsumizioen bila.
 - Mahaiak eta aulkiak ez dira mugituko.
- **EGUNKARIA ETA ERREBISTAK.** Ez dira egongo.
- **AIREZTATZEA:** lokala ordu eta erdian behin aireztatu beharko da.
- **ORDUTEGIA.** Gaueko 1:00etik goizeko 9:00tara ezin da egon elkartean.

ERABILERA ZEHATZAK:

- **KARTA JOKUAK:** Antolatutako taldeetan izango da. Elkartean ez da egongo kartarik, tantorik, ez tapeterik ere. Talde bakoitzak hartu behar du ardura, kartak eta tantoak ekarri eta etxera berriro eramateko eta desinfektatu.
- **SUKALDEA:** Garbitzailerik ez dugu izango. Erabilitako tresna eta zerbitzu guztiak garbituta utzi behar ditugu "ura eta xaboiak edo ontzi-garbigailuan", garbitutakoan lehortu eta bere lekura eraman behar ditugu. Desinfektatuta eta lehortuta utziko dugu dena.
- **KONTSUMO APUNTEAK:** Kontsumoak apuntatzeko, horman esekita egongo dira orriak plastikoan.

Aramaion, 2021eko uztailaren 30ean.



Errespetatu osasun neurriak eta aholkuak

Zentzuz jokatu!

Eskerrik asko